

GAZTEIDEIAK LASARTE-ORIAKO GAZTEENTZAKO GAZTE-IDEIEN LEHIAKETA OINARRIAK:

Lehiaketaren xedea

Lehiaketa honen xedea gazteen ekimenak gauza daitezen sustatzea da, Lasarte-Oriako gazteen artean parte-hartzea eta sormena bultzatuz, bai eta gure komunitatearen garapenean inplikatzeko ere.

Izaera

Lehiaketa sari ekonomiko batekin zuzkitu da, epaimahaiak saridun ematen dituen bost ideiei esleitzeko, bai halaber Udalaren Gazteria eta Festak Departamentuak ideia horiek praktikan jartzearekin.

Parte-hartzaileen betebeharrak

Lasarte-Oriako udalerrian bizi diren pertsona gazte guztiek proposatzen ahalko dituzte ideiak (gaztetzat joko dira aurkezteko epearen barruan 14 urtetik 30era bitarteko adina dutenak).

Ideiak banaka nahiz taldeka aurkezten ahalko dira (bigarren kasuan, ordezkari bat izendatu beharko dute, eta hura arduratuko da administrazioarekiko erlazioez). Baldin eta ideia taldean aurkezten bada, kontuan hartu beharrekoa da saria bakarra izango dela taldearentzat.

Kategoria bakar bat ezarri da: 14tik 30era urteko gazteak.

Adingabeen kasuan, gurasoen edo legezko tutoreen beharrezko baimena aurkeztu beharko da, deialdi honetan parte hartuko bada.

Edozein kasutan ere, lehiaketan parte hartzeak berekin dakar haren oinarriak onartzea.

Aurkezturiko ideien betebeharrak

1. Etekin-asmorik ez duten ideiak eta Lasarte-Oriako populazio gaztearengan zuzeneko eragina izan dezaketenak edo hiriaren eraikuntzan gazteek parte har dezaten ahalbidetuko dutenak.

Beraz, mota honetako ekimenak hartuko dira aintzat:

Kulturaren arlokoak (sormena, erakusketa edo zabalkundea)
Sozialak

Kirolaren nahiz aisiaren arlokoak
Osasunaren arlokoak
Prestakuntza eta hezkuntzaren arlokoak
Ludikoak
Ingurumenaren arlokoak
Azterlanen eta ikerkuntzaren arlokoak
Beste batzuk..

2. Beharrezkoa izango da ideiak proiektu batean gauzatzeko modukoak izatea. Kasua hala bada, Lasarte-Oriako Udalak bere gain hartuko du proiektu hori.

3. Ideia bakoitza bakarka ebaluatuko da, alderdi hauei erreparatuz:
 - %20 - Sormena eta originaltasuna.
 - %20 - Ideiak gazteengan duen eragina. Populazio gaztearen heterogeneotasuna kontuan hartuta (adina, jatorria, gustuak, zaletasunak edo egoera sozioekonomikoa).
 - %20 - Denboran zehar irauteko modukoa izatea. Kontuan izanik jarduera martxan jartzeko denbora ez dela bi urtetik gorakoa izango lehiaketa ebazten denetik.
 - %20 - Gazteen parte-hartzea zein mailataraino sustatzen den.
 - %20 - Zenbateko bideragarritasuna duen Lasarte-Oriako Udalak martxan jar dezan.

4. Parte-hartzaile bakoitzak, banaka nahiz talde bateko kide moduan, gehienez ere bi ideia aurkezten ahalko ditu. Parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra irabazten ahalko du.

5. Aurkeztutako ideiareneko jabetza intelektualaren eskubideei dagokienez, parte-hartzaileen erantzukizuna izango da aurkezten den edozein erreklamazio.

6. Ideiak aurkezteko, formulario bat erabiliko da, eta hari erantzen ahalko zaizkio ideia aberasteko egoki ikusten diren agiri idatziak, grafikoak edo soinuzkoak.

7. Beren ideientatik saridunen gertatzen diren pertsonen udalarekin batera lan egiten ahalko dute ideia horiek gero martxan jartzen eta gauzatzen.

Epea

Proposamenak 2009ko otsailaren 2tik 27ra bitartean aurkeztu beharko dira, e-mailaren bitartez (gazteideiak@lasarte-oria.org) edo Gazte Informaziorako Udal Bulegoan (Manuel Lekuona Kulturetxeko hirugarren solairuan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara). Ez da onartuko epez kanpo jasotako ideiarik. Interneteko www.lasarte-oria.org helbidean daude parte hartzeko formularioak.

Ideia onenen hautaketa

Gazteak eta Festak Departamentuak egingo du lehen hautaketa, epaimahaiari 20 ideia aurkezteko eta hark ideia irabazleen gainean erabaki dezan. Hori egiteko, beharrezko bada, udaleko beste departamentuetako teknikarien laguntza izaten ahalko du, edo gaur egun berarekin batera hainbat programa eta proiektutan lanean ari diren gazte talde eta elkarteena.

Gazteria eta Festak Batzordeak izendatuko du epaimahaia, eta epaia emateko unean emango dira ezagutzera epaimahaikideak.

Epaimahaiak 5 ideia onenak hautatuko ditu saritzeko. Epaimahaiak esleitu gabe uzten ahalko du sarietakoren bat.

Epaimahaiak bere kideen botoen gehiengoz hartuko du erabakia.

Beharrezko ikusiz gero, aurkeztutako ideien defentsa eskatzen ahalko du epaimahaiak.

Sariak

Bost sari ezarri dira, **100 eurokoa** bakoitza.

Saria ideiarene arduradunari ordainduko zaio: banakako batek aurkeztutakoa bada, berari zuzenean; taldeka aurkeztutakoa bada, berriz, haren ordezkari ageri denari.

Gazteria eta Festak Departamentuaren ekarpena

Gazteria eta Festak Batzordeak konpromisoa hartzen du ezen Udalak martxan jarriko dituela ideia irabazleak, epaimahaiak lehiaketa ebazten duenetik gehienez ere bi urteko epean.